

Fundación **BBVA**

VIII.
Musika Garaikideko
Kontzertu Zikloa
Bilbao
2017-2018

Trío Zukan

Fundación BBVA
San Nikolas Eraikina
Bilbao

2018
API
10



BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioak —ezagutza zientifikoa eta kultur sormena bultzatzea bereizgarri duenak— Musika-programa bat eratu du arte-adierazpen horri onura ateratzeko eta hartaz gozatzeke gizarteak dituen era ezberdinetan barrena egindako ibilbide oso bat izango balitz bezala. Horrela, obra berriak sortzea sustatzen du konposizio-enkarguak eginez, eta haiek zaindu eta zabaltzeari bide ematen dio lehen mailako diskoetxe eta interpreteekin elkarlanean egindako grabazioen bitartez. Zuzeneko musikaz gozatzea sustatzen du urteko kontzertu-zikloen bitartez, zeinei esker herritarrek doan entzuten baitituzte erreperitorio garai-kidean erreferentzia diren ensemble eta solistak. Konferentzia-zikloak antolatzen eta argitalpenak editatzen ditu egile jakin batzuen lana hobeto ulertzeko edota konposizio-aldi jakin batzuen azterketari ekiteko. Musikari gazteei prestatzeko aukera ematen die

honako hauekin garatutako programen bitartez: Orquesta y Coro de la Comunidad de Madrid, Joven Orquesta Nacional de España eta Escuela Superior de Música Reina Sofía. Eta ikerketa- eta sorkuntza-proiektu oso berritzaileak gauzatzen ditu Musika eta Operako Leonardo Beken bitartez.

Orkestren kudeaketari buruzko sinposio espezializatuak antolatzen ditu, elkarlanean jarduten du herrialdeko hainbat musika-talde eta antzokirekin (Teatro Real, Teatro de la Maestranza, Gran Teatro del Liceu, Orquesta Sinfónica de Madrid eta Operaren Lagunen Bilboko Elkartea, besteak beste), eta bikaintasuna aitortzen du honako sari hauen bidez: Premio de Composición Asociación Española de Orquestas Sinfónicas-Fundación BBVA eta BBVA Fundazioa Fronteras del Conocimiento Saria Musika Garaikidean.

Fundación **BBVA**

Interpreteak

Trío Zukan

Gorka Catediano, perkusioa
Jon Ansorena, txistua
Maria Zubimendi, akordeoia

Egitaraua

LEHEN ZATIA

Francisco Domínguez (1993)
Seis miradas sobre...

Félix Ibarondo (1943)
Eziñeruntz

Isabel Urrutia (1967)
*Etorkiz eta izatez**

BIGARREN ZATIA

María Eugenia Luc (1958)
*Begiratu**

Magnus Lindberg (1958)
Metal Work

Mikel Chamizo (1980)
Lantz

*Erabateko estreinaldia

Zikloaren koordinazioa

Gabriel Erkoreka

Francisco Domínguez

Seis miradas sobre...

Trío Zukan 2014ko udazkenean sortu zen Gasteizko Bernaola Jaialdiko emanaldi bat zela eta. Taldea osatzen duten hiru kideak han bildu ziren lehendabizikoz, hainbat lan bakarka eta bikoteka interpretatzeko, garai hartan ia ez baitzegoen txistu, perkusio eta akordeoi hirukoterako errepertorio espezifikorik; David Cantalejoren lan bat, besterik ez, *Otxate*, BBVA Fundazioaren ziklo honetan hilabete batzuk lehenago estreinatua. Nolanahi ere, elkar ulertze handia sentitu zuten batera aritu ziren emanaldi hartan, eta hirukotea osatzea erabaki zuten. Arrisku handiko proiektua zen; lehenik eta behin, musika berria sortu behar zuten ordura arte ezezaguna zen instrumentu-konbinazio horretarako. Hori horrela, Musikeneko Konposizioko karrerako ikaskideengana jo zuten lehenik lantegi horretarako: Jagoba Astiazaranek *Hamaika Ilargi* lan ederra idatzi zuen haientzat, eta Francisco Domínguezek, berriz, gaurko kontzertuari hasiera emango dion lana eskaini zion Trío Zukani.

Biola-jotzaile trebea eta irudimen handiko konpositorea izanik, Domínguezek konposizio-hizkuntzak lotura estua du bere jotzaile izaerarekin, eta instrumentuekiko zuzeneko kontaktua du bereizgarri; izan ere, zehaztasun handiz

esploratzen ditu instrumentuak interpretatzaileekin batera, soinu berrien eta ohi ez bezalako efektuen bila. Ildo horretatik, *Seis miradas sobre...* izeneko lana Domínguezek Trío Zukanekin batera egindako lan-saioen ondorioz sortu zen, era guztietako teknikekin esperimentatzea proposatzen zenez. Ciudad Realeko konpositoreak lan horren emaitza interesgarrienak bildu eta tinbre-trebetasun handiko partitura batean konbinatu zituen, eta obra bere egin du Trío Zukanek, birtuosismoz egin ere.

Autorearen hitzak erabiliz, *Seis miradas sobre...* obrak «sei mugimendu txiki ditu, zein bere nortasunarekin, eta denek ezaugarri komun batzuk dituzte. Mugimenduen indibidualtasunaz baliatuta, instrumentu-tratamendu arras ezberdinak landu ditut haietako bakoitzean, eta askotariko konbinazioak esploratu ditut instrumentu talde berezi honek eskaintzen dituen aukeren artean. Keinu instrumentalak garrantzi handia du lan honetan: keinu histeriko eta aztoratuak beste estatiko batzuekin txandakatzen dira. Txandakatze horrek sortutako kontrastea funtsezkoa da diskurtsu musikala lantzeko. Lanak, oro har, izaera erritual, latz eta aldi berean kontenplatiboa du, agian txistuan eta bereziki txistu baxuan oinarritua, oraindik esploratu gabe dagoen egiazko unibertso bat baita».

Félix Ibarrodo

Eziñeruntz

Oñatin jaio zen, espiritualtasun handiko eta musikarekiko joera nabarmeneko familia baten barruan. Félix Ibarrodo bi zaletasun horiek bere egin zituen behala, eta, hamar urte zituenean, Arantzazuko Santutegiko frantziskotarren ikastetxean sartu zen. Han, hiru urte geroago, konposiziorako bokazioa aurkitu zuen. Espezialitate hori Bilbon ikasi zuen lehenik, eta Parisen geroago. Frantziako hiriburua, berarentzat, hasieratik eta azken 40 urteetan hazi besterik egin ez den ibilbide baten epizentroa izan zen. Musika- eta estetika-balio sendoetan oinarritutako ibilbideagatik, Ibarrodo euskal musikaren erreferentzia bihurtu da, bai Euskadin bai kanpoan ere; Harry Halbreich musikologoak, adibidez, hauxe idatzi zuen Ibarrodo buruz, 1983an: «suharki euskalduna, osoki biltzen ditu bere herrikideen ezaugarriak: irrika konzentratua; adierazpen sutsua, indarke-riara irits daitekeena; bizi-esperientzia abstrakzioaren eta sistemen gaineratik lehenestea; eskuzabaltasuna, eta amore ematerik edo atsegirik gabeko humanismo baten ikuspegiarekiko irekitasuna. Ibarrodo musikari konprometitu da, hitzaren adiera guztietan, eta «lurreko gizona» da eta ez laborategikoa».

Hori esanda, oraintsu arte ez du behin-
goz erabaki Ibarrodo euskal instru-
mentuetan nagusirako idaztea, txis-

turako, alegia. Interesa piztu zitzaion Durangoko Silboberri txistu-elkartek egindako proposamenaren ondorioz: «Egun batean Parisera idatzi zidaten txisturako konposizio-lehiaketa bateko epaimahaikidea izan nendin proposatzeko», gogoratzen zuen Ibarrodo 2015ean. «Tresna umetatik ezagutzen nuen; aitak txistulariekin lan egiten zuen, baina ez nuen inoiz pentsatu nire lanetan erabiltzea. Azkenean txistu eta akordeoirako *Eziñeruntz* idaztea erabaki nuen. Egitea oso gogorra izan zen, izenburuak adierazten duen moduan, ezinezkoraino iristen saiatzen bainaiz instrumentuak esplotatzeko orduan».

Lehen hurbiltze hartan –orduz geroztik txistua erabiltzen duten bi lan gehiago idatzi ditu–, Ibarrodo bere ideia estetikoaren oso antzeko ezaugarriak aurkitu zituen tresna folklorikoan: «Txistua oso antzinako tresna bat da, eta jende askok mespretxatu egiten du horregatik. Baina bere soinuaren ezaugarri primitibo hori ere bada bere indarra», adierazi du. *Eziñeruntz* lanari, horrenbestez, ez zaio arrotz Ibarrodoen ia ekoizpen osoan ageri den lerro jarraitua; Carlos Villasol musikariak dioen moduan, ezaugarri hauek ditu: «Musika bitalista bat, intentsitate emozional handikoa, eta horregatik, hain zuzen ere, sentsualtasun nabarmeneko ere bai; interpretatzaileei berebiziko inplikazioa eskatzen die, eta entzuleari, ondorioz, haren aurrean baldintzarik

gabe amore ematea». *Eziñeruntz* lanari dagokionez, Villasolek zera uste du: «Txistu eta akordeoirako kontzertu txiki bat da nolabait, bi iturrien arteko aurkakotasun-printzipioa baita pentagrama horien gidaria. Baina *combattimento* hori, ebatzi beharrean, berdinketarekin etengo da ustekabeen, bulkada atsekabe bihurtu den lekura iritsita. Bertan, danbolina da, ordea, azken hitza duena».

Isabel Urrutia

Etorkiz eta izatez

Gaur ezagutuko dugun lehen erabateko estreinaldia Isabel Urrutiaren eskutik iritsiko da. Autore horrek txistu garaikidearen proiektu handi bat sinatu zuen jada 2014an: *Eresoinka*, txistu eta orkestrarako kontzertua, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren agindu eta Bilbon, Gasteizen, Iruñean eta Donostian interpretatu zuena. Urte batzuk lehenago, 2001ean, Urrutiak ere *Gogoan* idatzi zuen txistu eta danbolinerako; euskal tresnarekiko harreman luzea du, beraz, eta esperientzia horretatik abiatu da herri-tradizioko instrumentuak menderatzeko bidean. Hain zuzen ere, *Etorkiz eta izatez* lanean, txistu, akordeoi eta perkusioarekin batera, mundu osoko hogeita zazpi tresna folklorikoz osatutako orkestra «birtual» bat ageri da, besteak beste aulos, azteka, *pungi*, *didgeridoo*, *di*, *erke*, *kena*, *launeddas*,

shakuhachi, *orlo*, *jubus*, *n'goni*, *oud*, *vina* eta abar. Multzo heterogeneo horri esker Urrutiak eraiki ahal izan duen soinu-paletan, ahozko tradizioko instrumentuen sonoritateekin koloreztatzen dira instrumentu klasikoekin tinbreak, eta alderantziz.

Urrutiak dioenez, «*Etorkiz eta izatez* obra da José Luis Campana konpositorearekin batera sortutako konposizio-metodo berri bat (“World Timbres Mixture” esaten diogu) erabiliz konposatu dudan lehenengoa. Metodo horrek soinu-material berri bat erabiltzea du oinarri, estetikagatik hautatu dena; eta, funtsean, orkestra klasikoko instrumentuak hainbat kontinente, kultura eta herrialdetako ahozko tradizioko instrumentuekin nahastean datza. Zenbait herri-tradiziotako instrumentuen soinu-ezaugarriei buruzko ikerlana egin ondoren [...] ganbera eta orkestrakogure partituretarako sonoritate berriz beteriko mundu ezohiko, ustekabe eta mugagabe bat aurkitu dugu».

Adierazi beharra dago zati elektronikoa, Radio Franceren instalazioetan egindakoak, hogeita zazpi instrumentu folklorikoen tinbreak biltzen dituela, esentzia tinbrikoa aldatu gabe. Urrutiak, soinua prozesatzeko programen bidez, altu edo baxurantz baino ez du hedatu haien tesitura, eta haloak sortu ditu «erabateko isiltasuna koloreztatzeko, soinu-plano ezberdinak entzun ahal izan

daitezen». Halo horien emaitza nolabait- teko espazio tinbriko denboragabe bat da; espazio horretatik instrumentuak sortzen eta bertara itzultzen dira, soinu- memoria unibertsala gordetzen duen arragoa izango balitz bezala.

María Eugenia Luc

Begiratu

Trío Zukanen enkargua jaso aurretik, María Eugenia Luc musikagileak txistu eta elektronikarako pieza eder bat idatzi zuen. *Zargan* izeneko lan hori Silboberrik estreinatu zuen Donostiako Musika Hamabostaldian, 2011ko abuztuan. Lan fin eta gozo horrekin Lucek txistuaren araztasuna bilatu zuen, eta elektronikarekin batu *glissandi* altuen eta, behe-erregistroan, tremolo urdurien jario batean. *Begiratu* lanean, Lucek *Zargan* obran erabili zituen baliabide asko berreskuratu zituen, baina oraingoan urrats bat harago eramanean ditu akordeoi eta perkusio bikotean; hala bada, «“begirada” berezi bat proposatzen du soinu-keinuarentzat, denboran, tinbrean eta espazioan adierazi eta eraldatzen dena». Soinu-keinua da, horrenbestez, *Begiratu* lanaren pertzepzio-gida nagusia.

Konposizio-plano batean, Lucek urteetan zehar garatu duen sistema kuasi-linguistikoko baten barruan sartzen da *Begiratu*; sistema hori *de aire y luz*

izeneko zortzi obrako asmo handiko zikloarekin iritsi zen heldutasunera (2008-2015). Sistema horrek erabateko koherentzia ematen dio soinu-materialari haren aldagai guztiak antolatzen dituzten estrategien bitartez (erritmo eta bitartetik mikro eta makroegiturara arte), eta konplexutasun izugarri handia du: Lucek altuera-sareak gainjartzen ditu hainbat temperamentutan, baita aldibereko erritmo-denborako zenbait ardatz ere; instrumentuei tinbre-inguratzaileak aplikatzen dizkie, eta kulunkan jartzen ditu etengabe espektro harmonikoen eta inarmonikoen artean. Paradoxikoa bada ere, materialaren antolaketa labirintiko horri esker, naturaltasun eta askatasunez arnasten duen musika lortzen du.

Begiratu lanari buruz, Lucek honako hau azaltzen du: «lan honetan, denbora “bilakabide hautemangarri” bat da; neurtu ezin daitekeen nolakotasun subjektibo beharrean, psikologikoki zenbagarria. Elementu adierazkor eta subjektiboak sortzen dituen denbora manipulagarri eta elastiko bat». Azaltzen duenez: «espazioa elkarriketak diseinatzen ari da, bai ardatz horizontalean (ezker/eskuin, efektu estereoak) bai ardatz bertikalean, taldearen erregistro guztiek parte hartuz. Tinbreari dagokionez, argi eta garbi hauteman daitezkeen bi aldagairen arabera antolatzen da: soinu tonikoak (espektro harmonikoarena, iragazte, inguratzaile, testura eta abarren aldake-

tekin) eta zaratak (saturazioengatik eta espektroagatik)».

Magnus Lindberg

Metal Work

Magnus Lindberg konpositorea, Einojuhani Rautavaararen ikasle aparta eta Finlandiako musikaren figura nagusia, herrialde hartan akordeoirako idazten ari ziren musika berriaren joera-ekin bat egin nahi izan zuen 1984an. Izan ere, Finlandia aitzindaria izan zen instrumentu hori errepertorio klasiko-garaikidearen barruan finkatzen, eta, gaur egun, munduko akordeoi-eskola sendoenetako bat du. Matti Rantanen izan zen Finlandian akordeoia aintzat hartzeko mugimendu horretako interpretatzaile aktiboenetako bat, eta hark agindu zion, hain zuzen ere, Lindbergi pieza bakarlari berri bat egin zezan. Nolanahi ere, Lindberg, une hartan, lan ezagunena bilakatuko zen sorkaria lantzen ari zen *-Kraft*, orkestra-lan nerbioso bat, perkusioko sekzio izugarri handikoa- eta haren espirituaren zati bat sartu nahi izan zuen *Metal Work* lan txikian. Akordeoiari, era horretan, perkusioko hamabost instrumentu batu zitzaizkion, eta soinu metalikoa sortzea zuten guztiek ezaugarri.

Lindbergen iritiz, «*Metal Work* lanak zipriztin azkarren bidez egiten du aurrera aldarte liriko eta agresiboetan

zehar. Akordeoiaren metalezko mihien soinuak eta perkusio metalikoko instrumentuenak duo harrigarria osatzen du. Lana krotaloen eta akordeoiaren unisono distiratzaille batekin hasten da, eta aurrerago ere egongo dira unisonoko pasarteak. Elkarren ondoan eta gainean jarritako elkarrizketa-pasarteekin txandakatzen dira horiek. Diskurtso osoan zehar konstante bakarra dago: tinbrearen fusioa, eta erresonantziak luzatzea akordeoiaren eta perkusioaren soinuen artean. Lana kolpe solemne eta sakonekin amaitzen da, non akordeoilariak tam-tama jotzen parte hartzen duelarik. Amaiera magiko horrek *Kraft* lanaren pasarte batzuk iragartzen ditu».

Mikel Chamizo

Lantz

Programaren ohar hauek sinatu dituen honek idatzitako lan batekin amaituko da Trío Zukanen emanaldia. Hirukoteak *Lantz* agindu zuen *Soinuzko begiradak* izeneko proiektuaren barruan jasotzeko; Donostiako San Telmo Museoa estreinatu zuen, 2016ko urrian, eta, harrez geroztik, hamar aldiz edo jo dute, baita dantzaren esparrura eraman ere, Kukai Dantzako bi dantzarik abenduan Donostian estreinatu zuten bertsio koreografiatu batean.

Txistu, akordeoi eta perkusiorako idatzia, *Lantz* trio beste hirukote ospetsu

batetan oinarrituta dago: Ziripot, Miel Otxin eta Zaldiko, Lantzeko inauteri ospetsuaren protagonistak; nafarroako herri horretan aparteko bizitasun eta misterioz ospatzen dute urtero opresio, borroka eta heriotza osagai dituen mito hori. *Lantz* obran instrumentuek egiten dute inauteriko hiru pertsonaiena, edo, hobeto esanda, musikaren bidez adierazten dute haien izaera: Ziripot gizen gaixoaren sufrimendua, txistuarien bitartez; Miel Otxin erraldoiaren nagusikeria, akordioaren bitartez, eta Zaldiko zentauroaren amorrua, azkenik, perkusioaren bidez. Identifikazio horiek abstraktuak eta arinak baino ez dira, emaitzak ez duelako programatiko izan nahi, funtsezko baizik, arketipoetatik eraikitako dramatismoagatik, hain zuzen ere. *Lantz* obrak musika-diskurtso gatazkatsu, basati eta tragikoa agertzen du, baina bikaintasun, lotsagabekeria eta sarkasmoak iragazia, horiek baitira inauteriak errealitatearen mingostasuna gainditzeko baliatzen dituen estrategiak.

Mikel Chamizo

Trío Zukan



Osaera ezohikoa duen musika-taldea da, perkusioa, eskusoinua eta txistua batzen dituenek. Gorka Catediano perkusionistak, Jon Ansorena txistulariak eta Maria Zubimendi soinu-joleak sortu zuten 2014an, Musikene Euskal Herriko Goi-mailako Musika-ikastegian.

Hirukoteak bideari ekin zionean, musika-tresnen konbinazio horretarako errepertoriorik ez zegoen. Hala, taldeko kideek lankidetzaren proiektu bat jarri zuten abian hainbat konpositoreekin, errepertorio berria sortzeko asmoz. Horrenbestez, arte-sorkuntza garaikidea bultzatzea eta ezagutaraztea da taldearen funtsezko nortasun-bereizgarria.

Trío Zukanek, besteak beste, jaialdi eta areto hauetan jo du: Musikagileak Musika Garaikideko Zirkuitua, Donostiako San Telmo Museoa, Altzuzako Oteiza Museoa, Haroko Torreón Museoa, Donostiako Musika Hamabostaldia, Durango Hiria Lehiaketa eta Gasteizko Bernaola Jaialdia. Emanaldi horietarako eta gainerakoetarako, taldeak hainbat lan enkargatu, berrikusi eta estreinatu ditu, tartean, konpositore hauenak: Francisco Domínguez, Mikel Chamizo, Óscar Escudero, Jagoba Astiazaran, Vasileios Filippou edo Joaquín Lecumberri. Gaur egun, elkarlanean ari da María Euge-

nia Luc, Isabel Urrutia eta Helga Arias musikagileekin, tresna hirukote horretarako musika berria sortzeko.

Trío Zukanen lanik nabarmenenak dira *Soinuzko Begiradak* (hainbat konpositoreri enkargatutako lanez osatutako programa), *Xabier Musuzikin* (konzertu pedagogikoa, Urtzi Iraizozen laguntzarekin) eta *Begirada Anitzak* (proiektu diziplina-anitza; elektronikoa, dantza, bideoa eta zuzeneko musika).

Hurrengo kontzertuak

Musika Garaikideko VIII. Kontzertua Zikloa BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2018 | 05 | 15

Ensemble PHACE

Nacho de Paz (zuzendaria)

Paris qui dort, René Clair-en filma. Yan Maresz-en musika

